LEHIAKETA PUBLIKOA, paraleloan emultsio polimerizaziorako erreakzio automatikorako sistema kontratatzeko (88/06 LP). 23817

LEHIAKETA PUBLIKOA, mikroskopiorako kaltzioa neurtzeko sistema bat kontratatzeko (113/06 LP). 23819

LEHIAKETA PUBLIKOA, gasen kromatrografo batekin konexioa duen FTIR espektrometroa kontratatzeko (116/06 LP) 23821

## Beste Iragarki Ofizial Batzuk

### HERRIZAINGO SAILA

IRAGARKIA, Enrique Hilario Ugarte Zuara jaunak eskatuta hasi den 988/06 espedientean berari egindako errekerimendua jakinarazteko dena. Errekerimendu hori Norberaren Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan azaltzen diren eskubideez baliatzeari buruzkoa da. 23822

IRAGARKIA, Alexander Tobón Fernández jaunak 2006ko urriaren 16an egindako eskabidea dela-eta hasi den 1025/06 espedientean emandako Segurtasun sailburuordearen Ebazpena jakinarazteko dena. Aipatu espedientea Norbere Datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan jasotako eskubideez baliatzeari buruzkoa da. 23823

# Xedapen Orokorrak

### NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

### 5944

236/2006 DEKRETUA, azaroaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko patata hazi, biltegiratu eta merkaturatzeko laguntzak ematea arautzen duena.

Europako nekazaritza merkatuak globalizatu egin ziren, eta Europar Batasunean ez zegoen antolakuntza komunik patataren merkatuan, sektoreko ekoizleei diru sarreren maila bermatze aldera; hala, bada, sektore ho-

CONCURSO PÚBLICO para la contratación de un sistema automático de reacción en paralelo para polimerización en emulsión (C.P. 88/06). 23817

CONCURSO PÚBLICO para la contratación de un sistema de medición de calcio para microscopio (C.P. 113/06). 23819

CONCURSO PÚBLICO para la contratación de un espectrómetro FTIR con conexión a un cromatrógrafo de gases (C.P. 116/06). 23821

## Otros Anuncios Oficiales

### DEPARTAMENTO DE INTERIOR

ANUNCIO por el que se notifica el requerimiento realizado a D. Enrique Hilario Ugarte Zuara en el expediente con número de referencia 988/06 incoado a su instancia sobre el ejercicio de derechos contenidos en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal. 23822

ANUNCIO por el que se notifica la Resolución del Viceconsejero de Seguridad recaída en el Expediente con número de referencia 1025/06 incoado a instancia de D. Alexander Tobón Fernández mediante solicitud de fecha 16 de octubre de 2006 y relativa al ejercicio de los derechos contenidos en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal. 23823

# Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

### 5944

DECRETO 236/2006, de 21 de noviembre, de ayudas al cultivo, almacenamiento y comercialización de la patata de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La globalización de los mercados agrarios europeos, unida a la falta de una organización común de mercado de la patata por parte de la UE que garantice el nivel de ingresos de los productores del sector, dio lugar

rretan krisi sakona gertatu zen. Ondorioz, ezin kontrola zitezkeen gorabeherak gertatu ziren prezioetan, eta labore lurren azalera asko murriztu zen. Horrek bai Estatuaren bai autonomia erkidegoaren kuotak era nabarmenean gutxitzea ekarri zuen.

Egoera horren aurrean, Administrazioak esku hartzea erabaki zuen, patata hazi, biltegiratu eta gordetzeko laguntzen bidez, Araban tradiziozkoa den laborantza horri eustea bermatzearren. 1996-1999, 2000-2002 eta 2003-2005 planek emaitzarik eman dute: hazi ziurtatua erabiltzea sustatu da bereziki, kalitateko patata lortzeko funtsezko oinarria baita; eta, era berean, merkaturatze kontratu gehiago sinatu da industria eraldatzailearekin.

Hala ere, ezarritako neurriak ez dira aski izan laborantza hori —berekin dakartzan arriskuen eta ziurgabetasunen aurrean— uzteko joera geldiarazteko. Patataren sektorean badira oraindik ere egiturazko gabezia zenbait, eta haiexei, hain zuzen, tinko eta erabakimenez ekin behar zaie behin betiko. Xede horrekin sortu da dekretu hau, eta ezartzen dituen neurrien eginkizuna da sektoreak iraun dezan estrategikoak diren alderdi zenbaitetan eragina izatea. Horregatik da oraindik beharrezkoa administrazioak esku har dezan, patataren laborantzaren errentagarritasuna areagotze aldera, sektorea bultzatuz patataren merkaturatze lehiakortasuna sustatzen duten eta desagertzea saihesten duten egitura egonkorretan antola dadin.

Dekretuak aldi berri honi erantzuteko asmoa du, beharrezko aldaketen eta egokitzapenen bitartez. Hain zuzen, dekretuan patata hazi, biltegiratu eta merkaturatzeko laguntzen araubidea ezarri da, Patatagintzaren 2003-2005eko Plana bukatu denez gero.

Arabako Foru Aldundiari, nekazaritzako erakunde profesionalei zein sektoreko elkarteei egin zaizkie kontsultak dekretua taxutzerakoan.

Horregatik guztiagatik, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuak hala proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko azaroaren 21ean egindako bilkuran aztertu eta onartu eta gero,

XEDATU DUT:

*1. artikulua.*– Helburua.

Dekretu honen bitartez jarduera, proiektu eta inbertsio jakin batzuk egiteko laguntzak arautu nahi dira. Euskal Autonomia Erkidegoan patataren ekoizpena hobetzeko, natura inguruneari kalterik egiten ez dien teknologia berriak sartzeko, sektorean merkataritza egitura egonkorrak sustatzeko eta kalitatezko nahiz ekoizpen ekologikoko arau edo zigiluek babestutako patata ekoizpena gehitzeko izan beharko dute, zehazki, aipatu jarduera, proiektu eta inbertsioek.

a una profunda crisis en el mismo. Como consecuencia de ello se produjeron oscilaciones incontrolables de los precios y drásticas reducciones en las superficies de cultivo con pérdidas importantes tanto en la cuota estatal como autonómica.

Ante esta situación, la Administración decidió actuar mediante planes de ayudas al cultivo, almacenamiento y conservación, que garantizasen el mantenimiento de este cultivo tradicional en el Territorio Histórico de Álava. Los planes 1996-1999, 2000-2002 y 2003-2005 han dado sus frutos: se ha fomentado muy especialmente la utilización de semilla certificada, base esencial para la obtención de una patata de calidad, y se ha incrementado la suscripción de contratos de comercialización con la industria transformadora.

Sin embargo, las medidas establecidas no han sido suficientes para detener la tendencia al abandono de este cultivo ante los riesgos e incertidumbres que provoca. El sector de la patata todavía posee unas deficiencias estructurales a las que definitivamente es necesario abordar de manera firme y decidida. Con este objetivo nace el presente Decreto, en el que se establecen una serie de medidas que pretenden incidir sobre aspectos estratégicos para la propia supervivencia del sector. Es por ello que sigue siendo necesaria la intervención de la Administración, para seguir contribuyendo a mejorar la rentabilidad del cultivo, propiciando la articulación del sector sobre la base de estructuras estables que fomenten la competitividad comercial de la patata y eviten su desaparición.

El presente Decreto viene a dar respuesta a las necesidades de esta nueva etapa, efectuando las modificaciones y adaptaciones necesarias. En él se establece un régimen de ayudas al cultivo, almacenamiento y comercialización de la patata, tras el agotamiento del Plan Sectorial de la Patata 2003-2005.

La Diputación Foral de Álava y las organizaciones profesionales agrarias y las asociaciones sectoriales han sido consultadas en la elaboración del presente Decreto.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 21 de noviembre de 2006,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Objeto.

El presente Decreto tiene por objeto regular la concesión de ayudas económicas para la realización de actividades dirigidas a la mejora del cultivo, del almacenamiento, de la comercialización y al incremento de la producción de patata amparada por sellos o normas de calidad o de producción ecológica en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Fekularako patata lortzeko proiektu edo inbertsioak berariaz kanpo utzi dira, ez baitzaie dekretu hau aplikatuko.

*2. artikulua.*– Laguntzen izaera, finantzazioa eta bateragarritasuna.

1.– Dekretu honen bidez ematen diren laguntzak ez itzultzeko diru-laguntzak izango dira.

2.– Dekretu honetan jasotako laguntzak emateko diru baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan uneko ekitaldi bakoitzerako jarritako aurrekontu kredituetatik aterako dira. Eman beharreko laguntzen zenbatekoak ez du, guztira, esleipen hori gainditu beharko, ez eta, aurrekontuetan aldaketarik eginez gero, kopuru hori eguneratzearen ondoriozko esleipena ere.

3.– Dekretu honen bidez arautzen diren laguntzak bateragarri izango dira helburu bererako ematen diren beste laguntza, diru-laguntza edo diru sarrera batzuekin, baina ezingo da gainditu diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa. Beste diru-laguntza batzuk lortzearen ondorioz muga hori gaindituz gero, dekretu honetan arautukako diru-laguntzak emateko ebazpena aldatuko da. Esandakoa gorabehera, dekretu honen bidez arautukako laguntzak bateraezinak izango dira nekazaritza produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko Europar Batasunak patataren sektoreari ematen dizkion laguntzekin.

*3. artikulua.*– Onuradunak.

Oro har, hauek izan daitezke dekretu honetan jasotako laguntzen onuradun: nekazaritzako ustiategien titularrak, eraldaketako nekazaritza sozietateak, kooperatibak, hazia ekoizten duten erakundeak edo beste edozein eratako elkarteak.

*4. artikulua.*– Onuradunen betebeharrak.

1.– Onuradunek betekizun hauek bete beharko dituzte kasu guztietan:

a) Arau honetan jasotako jardueretako batean jardutea.

b) Zerga betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

c) Beste erakunde edo administrazio batzuei laborantza honetarako eskatutako edo horiengandik jasotako laguntzak adieraztea.

d) Hazitarako patata hazi, biltegiratu, kontserbatu eta ontzikiratzeari buruzko araudia betetzea.

e) Diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzera zigortuta ez egotea, ez zigor arloan ez administrazio arloan, eta ez izatea horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik, sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik ezarritakoak barne, 2005eko otsailaren 18 4/2005 Legeko (Gizonen eta Emakumeen Berdintasu-

Queda expresamente excluida la aplicación del presente Decreto cuando las actividades tengan por objeto la patata destinada a fécula.

*Artículo 2.*– Naturaleza, financiación y compatibilidad de las ayudas.

1.– Las ayudas que se concedan en virtud del presente Decreto tendrán el carácter de subvenciones no reintegrables.

2.– Los recursos económicos destinados a la concesión de ayudas previstas en el presente Decreto procederán de los créditos presupuestarios establecidos al efecto para cada ejercicio en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. El volumen total de las ayudas a conceder en cada ejercicio no excederá de la citada consignación o de la que resulte de su actualización en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias conforme a la legislación vigente.

3.– Las ayudas reguladas en el presente Decreto serán compatibles con otras ayudas, subvenciones o ingresos para la misma finalidad, siempre que no se supere el límite máximo de la cuantía subvencionable. La superación de dicho límite por obtención concurrente de otras subvenciones dará lugar a la modificación de la Resolución de concesión de las subvenciones reguladas por el presente Decreto. No obstante lo anterior, las ayudas reguladas en el presente Decreto serán incompatibles con las ayudas comunitarias al sector de la patata relativas a la mejora de la transformación y comercialización de los productos agrícolas.

*Artículo 3.*– Beneficiarios.

Con carácter general, podrán ser beneficiarios de las ayudas recogidas en el presente Decreto los Titulares de Explotaciones Agrarias, las Sociedades Agrarias de Transformación, las Cooperativas, las Entidades Productoras de Semillas, o cualquier otra forma asociativa.

*Artículo 4.*– Requisitos de los beneficiarios.

1.– Los beneficiarios deberán cumplir en todos los casos los siguientes requisitos:

a) Desarrollar una actividad de las contenidas en la presente norma.

b) Estar al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social.

c) Declarar en su caso, las ayudas obtenidas y/o solicitadas de otros organismos o Administraciones para este cultivo.

d) Cumplir la normativa de aplicación en lo referido al cultivo, almacenamiento, conservación y envasado de la patata de siembra.

e) No estar sancionado penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición

nerakoa) seigarren azken xedapenean ezarritakoarekin bat.

2.– Onuradunak nekazaritza ustiategiaren titularrak badira, aurrekoez gain, betekizun hauek ere bete beharko dituzte:

a) «Lehentasunezko nekazaritza ustiategia» kalifikazioa izatea, 1995eko uztailaren 4ko 19/1995 Legean (Nekazaritzako Ustiategiak Modernizatzeari buruzkoa) eta 1997ko uztailaren 8ko 168/1997 Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoko lehentasunezko nekazaritza ustiategiak eta EAEko eskualdeetako eta lurralde historikoetako laborantzarako gutxieneko unitateak zehazten dituena) agindutakoaren arabera.

b) Birosi indizeari dagokionez, % 7 gainditzen ez duen hazi ziurtatua erabiltzea.

c) Gutxienez, patata hazteko 4 hektarea izatea.

d) Diruz laguntzeko patata sailak «eskabide bakarra» delakoan adieraztea, apirilaren 25eko 86/2006 Dekretuan arauturik dagoenez. Izan ere, dekretu horren bidez ordainketa bakarreko diru-laguntzak eta nekazaritza eta abeltzaintzarako bestelako zuzeneko laguntza komunitarioak garatu eta ezarri dira Euskal Autonomia Erkidegoan.

e) Merkaturatzeko laguntzak eskatuta dituztenen kasuan, salerosketako kontratuak sinatuta izatea salerosketako kontratu homologatuaren ereduarekin bat.

f) Patatagintzako ustiapen bakoitzerako landa koadernoa betetzea. Patatagintzako sail guztietan egindako jarduera eta tratamenduak jaso beharko dira. Era berean, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzaren esku eduki beharko da, kontsulta dezan, eta baimendun teknikari arduradunaren bisita guztiak jasoko dira.

g) Ustiategian kudeaketa tekniko eta ekonomikoa egitea, baimenduriko kudeaketa zentro batek gainbegiratuta, edo bestela Ustiategiak Aholkatzeko Sisteman parte hartzeko ardura norbere gain hartzea (2007an ezartzekoa), 1782/2003 Arautegiarekin bat. Aholkularitza horretan, gutxienez, kudeaketako legezko betekizunak eta nekazaritzarako eta ingurumenerako jardunbide egokiak sartuko dira.

h) Patatagintzako sail bakoitzean hiru urteko gutxieneko txandaketa egitea. Patata hazi aurretik, laboreak, olio landareak edo lekadunak haztea; txandaketatik salbuetsiko dira berrogeialdia behar duten patataren gaitzak dituzten ustiapenak, berrogeialdiak iraun bitartean.

i) Nekazaritzako ustiapenei dagokien Laneko Arriskuen Prebentziorako Planari buruz zehaztuko diren ikastaro edo prestakuntza jardueretara joatea, Patatagintzaren Planak hartzen duen aldian.

3.– Onuradunak hazitarako patata ekoizten diren erakundeak direnean, betekizun hauek guztiak bete beharko dituzte:

Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

2.– Cuando los beneficiarios sean Titulares de Explotaciones Agrarias deberán cumplir, además de lo señalado anteriormente, los siguientes requisitos:

a) Contar con la calificación de Explotación Agraria Prioritaria, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 19/1995, de 4 de julio, de Modernización de las Explotaciones Agrarias, y Decreto 168/1997, de 8 de julio por el que se regulan las Explotaciones Agrarias Prioritarias en la Comunidad Autónoma del País Vasco y se determinan las unidades mínimas de cultivo de los distintos Territorios Históricos y Comarcas de la CAPV.

b) Utilizar semilla certificada que no sobrepase el 7% de índice de virosis.

c) Poseer una superficie mínima de cultivo de patata de 4 hectáreas.

d) Declarar las parcelas de patata a subvencionar en la «Solicitud Única», regulada en el Decreto 86/2006, de 25 de abril, de desarrollo y aplicación, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, del régimen de ayudas comunitarias «de pago único» y otros regímenes ayudas directas a la agricultura y ganadería.

e) Tener suscritos contratos de compraventa según modelo de contrato homologado de compraventa, para quienes opten a las ayudas a la comercialización.

f) Cumplimentación de un cuaderno de campo por explotación para el cultivo de patata. Tendrán que figurar todas las actuaciones y tratamientos realizados en todas las parcelas de cultivo de patata. Asimismo se deberá mantener a disposición de la Dirección de Agricultura y Ganadería para su consulta y se registrarán las visitas realizadas por el técnico responsable acreditado.

g) Llevar en la explotación una gestión técnica-económica, que deberá estar supervisada por un Centro de Gestión autorizado, o en su defecto comprometerse a participar en el Sistema de Asesoramiento de las Explotaciones de acuerdo al Reglamento 1782/2003, a implantar en 2007. Este asesoramiento deberá recoger, como mínimo, los requisitos legales de gestión y las buenas prácticas agrarias y medioambientales.

h) Rotación mínima trianual del cultivo de patata en cada parcela, recomendándose que precedan a la patata los cereales, oleaginosas o leguminosas; se exceptuarán de la rotación las explotaciones que padezcan enfermedades de la patata que impliquen una cuarentena, mientras dure ésta.

i) Asistir a los cursos o actividades de formación que se determinen, relacionados con el Plan de Prevención de Riesgos Laborales propio de las explotaciones agrarias en el período que comprende el Plan Sectorial.

3.– Cuando los beneficiarios sean entidades productoras de patata de siembra deberán cumplir todos y cada uno de los siguientes requisitos:

a) Erakundeak «hazitarako patata ekoiztu eta ugaltzeko titulua» izatea, eta bere eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren langile teknikoak eta laborategiko ekipamendua zein instalazioak izatea.

b) Ereiteko erabiliko den haziari aldez aurreko kontrolak egitea.

c) Elite edo Superelite motetako haziak ereitea, eta kalitate horretako hazirik ez duten barietateetan, A hazi ziurtatua.

d) Ereingo diren sailen zerrenda Hazien Zerbitzura bidaltzea, organismo kaltegarrien laginketa egin ahal izateko.

e) Landa ikuskapenak egitea eta, gero, kalifikazio proposamenak Hazien Zerbitzura bidaltzea.

f) Haziak ekoizten dituzten eta laguntza eskatzen duten erakundearekin kolaboratzen duten ekoizle guztiek hauek betetzea:

– «Lehentasunezko nekazaritza ustiapena» kalifikazioa izatea, 4. artikuluko 2.a) puntuan jasota dagoenez.

– Landa koaderno bat betetzea, hazitarako patata ekoizten den sail guztietan egiten diren jarduera guztiak jasota gera daitezen, besteak beste: landaketak, ongarriketak, ureztaketak, tratamenduak, eta abar.

– Lur sail guztiak eskabide bakarrean adierazita egotea.

***5. artikulua.***– Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak.

A) Jateko patatarako laguntzak. Jarduera hauek dira diru-laguntza jaso dezaketenak:

1.– Jateko patata sustatzea, merkaturako zein industriarako, kalitate bereizgarrien bidez:

a) LABEL kalitateko arautegian jasotako betekizunak betetzen dituen patata ekoiztea.

b) «Euskal Herriko Nekazaritza Ekoizpen Ekologikoa» kalitate bereizgarria duen jateko patata ekoiztea.

c) Dagokion administrazioa baimenduriko beste kalitate bereizgarri batzuk (jatorri deitura, adierazpen geografiko babestua) dituen jateko patata ekoiztea.

2.– Jateko patata merkaturatzeko kontratuak izenpetzea, merkaturako zein industriarako, 2 urteko gutxieneko epearekin.

3.– Barietate berriak, berrikuntza eta nekazaritzako jardunbide egokiak sustatzeko jarduerak; laguntza horiek onuradunek nekazaritzako ekoizleen elkarteak izan beharko dituzte.

B) Hazitarako patata ekoizten duten enpresetarako laguntzak. Jarduera hauek dira diru-laguntza jaso dezaketenak:

1.– Hazitarako 55 mm baino gutxiagoko patata lortzeko hazia ekoiztea sustatzea.

a) Que la entidad esté en posesión del Título de Productor Multiplicador de Patata de Siembra y que disponga del personal técnico y del equipo de laboratorio e instalaciones que requiere la ejecución de sus funciones.

b) Que se realicen controles previos de de la semilla que se va a utilizar en la siembra.

c) Que se siembre con semilla certificada Elite o Superélite, y en caso de variedades que no se presenten en esta calidad sean Certificada A.

d) Que se facilite al Servicio de Semillas relación de las fincas que se van a sembrar a fin de realizar los muestreos pertinentes de posibles organismos nocivos.

e) Que se realicen inspecciones de campo y con posterioridad se pasen las proposiciones de calificación al Servicio de Semillas.

f) Que todos los productores colaboradores de la entidad productora de semillas que opten a las ayudas:

– Cuenten con la calificación de Explotación Agraria Prioritaria tal y como recoge el artículo 4 punto 2.a).

– Lleven un cuaderno de campo de modo que queden anotadas las actuaciones que se realizan en todas y cada una de las diferentes parcelas en las que se realiza la producción de patata de siembra: plantación, abonados, riegos, tratamientos, etc.

– Que todas las parcelas estén declaradas en la Solicitud Única.

***Artículo 5.***– Actividades subvencionables.

A) Línea de ayudas a patata de consumo. Dentro de esta línea serán subvencionables las actividades siguientes:

1.– Potenciación de la patata de consumo, para mercado o industria, con distintivos de calidad:

a) Producción de patata de consumo que cumpla los requisitos recogidos en el reglamento de calidad LABEL.

b) Producción de patata de consumo con distintivo de calidad «Producción Agraria Ecológica del País Vasco».

c) Producción de patata de consumo con otros distintivos de calidad autorizados por la Administración competente (denominación de origen, indicación geográfica protegida).

2.– Suscripción de contratos de comercialización de la patata de consumo, para mercado o industria, por un mínimo de dos años.

3.– Actividades de promoción de nuevas variedades, innovación y fomento de las buenas prácticas agrarias; los beneficiarios de estas ayudas deberán ser Agrupaciones de Productores Agrarios.

B) Línea de ayudas a entidades productoras de patata de siembra. Dentro de esta línea serán subvencionables las actividades siguientes:

1.– Fomento de la producción de semilla de patata de siembra de calibres inferiores a 55 mm.

2.– Hazi ziurtatua merkaturatzeko kontratuak babestea. Neurri honetan, jateko patata ekoizten duten erakundeen eta hazitarako patata ekoizten duten erakundeen arteko kontratuek jaso dezakete laguntza.

3.– Barietate berriak, berrikuntza eta nekazaritzako jardunbide egokiak sustatzeko jarduerak.

C) Patata biltegiratu eta kontserbatzeko inbertsioetarako laguntzak. Produktua biltegiratu eta kontserbatzeko moduak hobetzeko diren inbertsioetarako izango dira laguntzak. Inbertsioak, berriz, hauek izango dira: aireztapen artifiziala, hotz sistemak, bunkerrak, olanak, baskulak, orga jasotzaileak, zintak eta antzekoak.

***6. artikulua.***– Laguntzen zenbatekoa.

1.– Jateko patatari loturiko lehengo jarduerek honelako kopuruak jasoko dituzte laguntzatzat:

a) 5. artikuluko A.1.a) idatz-zatian jasotako jarduerek: dagokion kalitate bereizgarria duen tona bakoitzeko 30 euro.

b) 5. artikuluko A.1.b) idatz-zatian jasotako jarduerek: babestutako laborantza ekologikoko tona bakoitzeko 30 euro.

c) 5. artikuluko A.1.c) idatz-zatian jasotako jarduerek: tona bakoitzeko 20 euro bitarte.

d) 5. artikuluko A.2 paragrafoan jasotako jarduerek: kontratatutako tona bakoitzeko 6 euro bitarte.

6.1. paragrafo honetako a), b), c) eta d) idatz-zatietan zenbatekoak metatu egin daitezke, 36 euro/Tm gehieneko kopururaino.

e) 5. artikuluko A.3 paragrafoan jasotako jarduerek: jardueraren gastuen % 80 bitarte.

2.– Hazitarako patatari loturiko lehengo jarduerek honelako kopuruak jasoko dituzte laguntzatzat:

a) 5. artikuluko B.1 paragrafoan jasotako jarduerek: adierazitako neurriko tona prezintatu bakoitzeko 60 euro.

b) 5. artikuluko B.2 paragrafoan jasotako jarduerek, hazitarako patatari loturikoek: kontratatutako tona bakoitzeko 6 euro bitarte.

c) 5. artikuluko B.3 paragrafoan jasotako jarduerek: jardueraren gastuen % 80 bitarte.

3.– 5. artikuluko C) idatz-zatian jasotako jarduerek: jardueraren gastuen % 40 bitarte.

***7. artikulua.***– Laguntzak esleitzeko prozedurak eta irizpideak.

Dekretu honen babesean eskatutako laguntzak emateko eta horien zenbatekoak finkatzeko, prozedura hau jarri da:

2.– Apoyo a contratos de comercialización de semilla certificada. En esta medida serán subvencionables los contratos realizados entre entidades productoras de patata de consumo y entidades productoras de patata de siembra.

3.– Actividades de promoción de nuevas variedades, innovación y fomento de las buenas prácticas agrarias.

C) Línea de ayudas a inversiones para almacenamiento y conservación. Serán objeto de ayuda las inversiones que tengan por objeto mejorar las condiciones de almacenamiento y conservación del producto mediante ventilación forzada, sistemas de frío, bunker, lonas, básculas, carretillas elevadoras, cintas y similares.

*Artículo 6.*– Cuantía de las ayudas.

1.– Las actividades anteriores de patata de consumo serán subvencionadas conforme a las siguientes cuantías:

a) Las actividades recogidas en el apartado A.1.a) del artículo 5 podrán ser subvencionadas hasta en 30 euros/Tm comercializada con el correspondiente distintivo de calidad.

b) Las actividades recogidas en el apartado A.1.b) del artículo 5 podrán ser subvencionadas hasta en 30 euros/Tm de cultivo ecológico acogido.

c) Las actividades recogidas en el apartado A.1.c) del artículo 5 podrán ser subvencionadas hasta en una cuantía de 20 euros/Tm.

d) Las actividades recogidas en el apartado A.2 del artículo 5 podrán ser subvencionadas hasta en 6 euros/Tm contratada.

Las cuantías previstas en las letras a), b), c) y d) de este apartado 6.1 serán acumulables entre sí, hasta un máximo de 36 euros/Tm.

e) Las actividades recogidas en el apartado A.3 del artículo 5 podrán ser subvencionadas hasta un 80% del gasto de la actividad.

2.– Las actividades en patata de siembra serán subvencionadas conforme a las siguientes cuantías:

a) Las actividades recogidas en el apartado B.1 del artículo 5 hasta 60 euros/Tm de patata precintada del calibre indicado.

b) Las actividades en patata de siembra recogidas en el apartado B.2 del artículo 5 podrán ser subvencionadas 6 euros/Tm contratada.

c) Las actividades recogidas en el apartado B.3 del artículo 5 podrán ser subvencionadas hasta un 80% del gasto de la actividad.

3.– Las actuaciones recogidas en el apartado C) del artículo 5 podrán ser subvencionadas hasta un 40% de la inversión.

*Artículo 7.*– Procedimiento y criterios de adjudicación de las ayudas.

Para la concesión y cuantificación de las ayudas solicitadas al amparo del presente Decreto se establece el siguiente procedimiento:

1.– Deialdian eskabideak aurkezteko jarritako epea igaro ostean, eta, behar izanez gero, zuzenketa izapidea gauzatu eta gero (dekretu honen 8.5 artikuluan aipatzen da hori), eskabideei gehienez dagokien zenbatekoa kalkulatuko da, aurreko artikuluan finkatutako zenbatekoen muga kontutan hartuta. Eskabideek dekretu honetan eskatzen diren betekizun subjektibo eta objektiboak bete beharko dituzte baliodunak izateko.

2.– Deialdiko diru horniketa aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera kalkulatutako zenbatekoei erantzuteko adinakoa bada, dagokien diru zenbateko laguntzak emango dira.

3.– Hala ez bada, deialdiko diru horniketaren zenbatekoa 5. artikuluan jasotako laguntzen artean banatuko da, horietako bakoitzerako hasieran kalkulatutako zenbatekoekin proportzioan hainbanatuz.

Ateratzen den zenbatekoa honela banatuko da laguntza mota bakoitzean:

a) Jateko patatarako laguntzak esleitzeko, lehentasun hauek ezarri dira: Dekretu honen 5. artikuluko A. idatz-zatiko 1.a), 1.b) eta 1.c) idatz-zatietan zerrendatutako jarduera lagungarrietarako eskabideak hartuko dira lehenik, eta hurrenkera horretan, 6. artikuluan jasotako gehieneko zenbatekoak aplikatuz. Gerakinik egonez gero, 2. puntuan jasotako jarduerak hartuko dira, eta horren ondoren ere gerakinik badago, 3. puntukoak hartuko dira.

b) Hazitarako patatarako laguntzak esleitzeko, lehentasun hauek ezarri dira: dekretu honen 5. artikuluko B.1 paragrafoko jarduera lagungarrietarako eskabideak hartuko dira lehenik, 6. artikuluan jasotako gehieneko zenbatekoak aplikatuz. Gerakinik egonez gero, B.2 eta B.3 idatz-zatietan jasotako jarduerak hartuko dira, hurrenkera horretantxe.

c) Biltegiratu eta kontserbatzeko laguntzetan, aktibo finkoko elementuetarako inbertsioek lehentasuna izango dute makinetako inbertsioen aurretik.

4.– Baldin eta laguntza mota bateko lehentasunezko jardueren multzo berean banatu beharreko zenbatekoa dekretuaren 6. artikuluan jasotzen den gehieneko zenbatekoaz erantzuteko adinakoa ez bada, jarduera bakoitzerako hasieran kalkulatutako zenbatekoarekin proportzioan banatuko da.

*8. artikulua.*– Deialdia.

1.– Dekretu honen xedapen iragankorrean 2006-2007 kanpainarako xedatutakoa gorabehera, aipatutako laguntzetarako deialdia egingo da urtero, Ne-

1.– Una vez finalizado el plazo de presentación de solicitudes fijado en la respectiva convocatoria, y substanciado, en su caso, el trámite de subsanación contemplado en el artículo 8.5 del presente Decreto, se procederá a efectuar, en relación con las solicitudes válidamente formuladas que reúnan los requisitos subjetivos y objetivos requeridos por el presente Decreto, el cálculo de la cantidad que como máximo les correspondería atendiendo al importe máximo de las cuantías fijadas en el artículo anterior.

2.– Si la dotación económica de la respectiva convocatoria alcanzara para atender a las cantidades inicialmente calculadas conforme a lo previsto en el apartado anterior, se procederá a conceder las ayudas por el importe de las mismas.

3.– En caso contrario, se procederá a distribuir entre las líneas de ayudas recogidas en el artículo 5, el importe global de la dotación económica de la convocatoria, prorrateándola en proporción a los importes inicialmente calculados para cada una de ellas.

La cantidad resultante se distribuirá dentro de cada línea de ayudas de la forma siguiente:

a) En la línea de ayudas a patata de consumo la adjudicación de las ayudas se efectuará atendiendo a las siguientes prioridades: en primer lugar se atenderá a las solicitudes referidas a las actividades subvencionables relacionadas en las letras 1.a), 1.b) y 1.c), en este orden, del apartado A) del artículo 5 del presente Decreto, adjudicándoles las cuantías máximas que posibilita el artículo 6. Si quedara excedente, se atenderá a las actividades contempladas en el punto 2; y si quedara aún tras ser atendidas éstas, se atenderá a las del punto 3.

b) En la línea de ayudas a patata de siembra la adjudicación de las ayudas se efectuará atendiendo a las siguientes prioridades: en primer lugar se atenderá a las solicitudes referidas a las actividades subvencionables relacionadas en la letra B.1 del artículo 5 del presente Decreto, adjudicándoles las cuantías máximas que posibilita el artículo 6. Si quedara excedente se atenderá a las actividades contempladas en la letra B.2 y B.3, en este orden.

c) En la línea de inversiones para almacenamiento y conservación, resultarán preferentes las inversiones en elementos de activo fijo sobre las inversiones en maquinaria.

4.– En el supuesto de que la cantidad a distribuir entre un mismo grupo de actividades prioritarias o preferentes de una misma línea de ayudas resultara insuficiente para atenderlas en las cuantías máximas que posibilita el artículo 6 del presente Decreto, se procederá a su distribución entre las mismas en proporción a los importes calculados al inicio del proceso para cada una de ellas.

*Artículo 8.*– Convocatoria.

1.– Sin perjuicio de lo dispuesto en la Disposición Transitoria del presente Decreto para la campaña 2006-2007, se procederá a la convocatoria de dichas ayudas

kazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren agindu baten bitartez. Deialdi horretan kanpaina bakoitzerako eskabideak aurkezteko epea ezarriko da, bai eta dagokion ekitaldirako dekretu honetan jasotako laguntzak finantzatzeko esleitutako aurrekontuaren zenbatekoa ere.

Dekretu hau aplikatzearen ondorioetarako, patata hazi eta merkaturatzeko kanpaina apirilaren 1etik hurrengo urteko martxoaren 31ra artekoa izango da. Laguntza jaso dezaketen jarduerak kanpaina bakoitzari lotu beharko zaizkio eta horren barruan gauzatu beharko dira.

2.– Dekretu honetan jasotako laguntzak eskatu nahi dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzan aurkeztu beharko dute eskabidea, eskatzaileak edo haren legezko ordezkariak sinatuta eta dekretu honen eranskinean jasota dagoen ereduaren arabera egina. Eskabidearekin batera, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

a) Beste erakunde edo administrazio batzuei eskatutako edo horiek emandako laguntzak egiaztatzen dituzten agiriak.

b) Eskabide bakarraren kopia, hala dagokionean.

c) Eskatzailearen nekazaritza ustiategiak Lehentasunezko Nekazaritzako Ustiategiaren kalifikazioa duela egiaztatzen duen agiria, behar izanez gero.

d) Merkaturatzeko laguntzak eskatuta dituztenen kasuan, jateko patata merkaturatzeko kontratu homologatuaren kopia.

e) «Hazitarako patata ekoiztu eta ugaltzeko titulua» izatea egiaztatzen duen agiria, eta laguntza eskatzen den kanpainako hazitarako patataren ekoizpenaren aurreikuspenak, arauak, programa edo plana.

f) 5. artikuluko C) idatz-zatian jasotako laguntzak eskatzen baldin badituzte: aurreikusitako inbertsioen proiektua eta dagokion aurrekontua edo, bestela, inbertsio txikiagoetarako, inbertsioen proformako fakturak.

3.– Kanpaina bukaeran aurkeztu beharko den dokumentazioa, diru-laguntza emateko beharrezkoak diren baldintzak betetzen diren egiaztatzeko.

a) Landa koadernoa, behar bezala beteta; diruz laguntzekoak diren laborantza lurreko sailetan egindako jarduerak eta horien oinarri diren datu guztiak jasota.

b) 5. artikuluko A.1.a) eta A.1.c) idatz-zatietan jasotako laguntzak lortzen baldin badituzte: dagokion kalitate bereizgarriarekin identifikatutako kilogramoak egiaztatzen dituen agiria.

c) 5. artikuluko A.1.b) idatz-zatian jasotako laguntzak lortzen baldin badituzte: nekazaritza ekologikoko patatarako utzitako hektareen egiaztagiria, agintaritza eskudunak egina, eta produktuaren salmentaren fakturak.

anualmente, mediante Orden del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación. En dicha convocatoria se establecerá el plazo de presentación de solicitudes para la correspondiente campaña, así como el importe de la asignación presupuestaria destinada a financiar las ayudas recogidas en este Decreto para el ejercicio correspondiente.

A efectos de la aplicación del presente decreto, la campaña de cultivo y comercialización de la patata será desde el 1 de abril al 31 de marzo del año siguiente. En este sentido, las actividades subvencionables habrán de referirse a cada una de las campañas y materializarse en ella.

2.– Las personas físicas o jurídicas que pretendan acogerse a las ayudas previstas en el presente Decreto deberán presentar ante la Dirección de Agricultura y Ganadería solicitud firmada por el peticionario o su representante legal, conforme al modelo recogido en el anexo del presente Decreto, junto con la siguiente documentación:

a) Documento o documentos acreditativos de las ayudas solicitadas u obtenidas de otros organismos y/o administraciones.

b) Copia de la Solicitud única, en su caso.

